

## 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION EGONKORTZEKO EZOHIKO PROZEDUREN BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIOA IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIAREN AKORDIOA. 2022KO URRIAREN 20KO EBAZPENAREN BIDEZ EGIN ZEN DEIALDIA

### DEIALDI ESPEZIFIKOGUZTIEN BEHIN BETIKO AZKEN KALIFIKAZIOA.

### ESKAINTZEN DIREN LANPOSTUAK AUKERATZEKO EPEA IREKITZEA.

2024ko urriaren 1ean lan-eskaintzen atarian argitaratu zen karrerako funtzionario izateko enplegu publikoa egonkortzeko ezohiko hautaketa-prozesuko epaimahaiak hartutako erabakia, deialdi espezifikoen behin-behineko azken kalifikazioa onartzen zuena, bai eta erreklamazioak aurkezteko zazpi egun balioduneko epea ere irekitzen zuena.

Karrerako funtzionario izateko enplegu publikoa egonkortzeko ezohiko hautaketa-prozesuko deialdi espezifikoguztien deitutako lanpostuen zerrenda 2024ko urriaren 1ean argitaratu zen Gerentearen erabakiaren bidez.

2. eranskineko 8.7 oinarri orokorraren arabera "*Prozesuko behin-behineko azken kalifikazioa behin argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, zazpi (7) egun balioduneko epea egongo da erreklamazioak jartzeko. Erreklamazioak aurkezteko epea behin amaituta, eta erreklamazioak ebatzi ondoren, halakorik balego, argitara emango dira deialdi bakoitzeko behin betiko kalifikazioak*",

Era berean, 8.8. oinarri orokorrak adierazten du "*Zazpi (7) lan egun balioduneko epea egongo da lanpostuak aukeratzeko, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita*".

6.1. oinarri espezifikoan esaten denaren arabera "eskaintzen diren plaza guztiek gaindituta badaukate derrigortasun data deialdia egiten den egunean, «gai» kalifikazioa izango dute kasuan kasuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duten hautagaiek", hori gertatzen den deialdi espezifikoetan, euskarazko zutabean "GAI" edo "EZ GAI" agertzen da.

Beraz, epaimahai kalifikatzaileak aipatutako hautaketa-prozesuko deialdi espezifikoen behin-behineko kalifikazioaren aurka aurkeztu diren erreklamazioak ebatzi ondoren, deialdi horietako bakoitzaren oinarri espezifikoetan aurreikusitakoarekin bat etorri, honako hau:

### ERABAKI DU

**LEHENENGOA.**– Ezohiko prozesuko deialdi espezifikoen azken eta behin betiko kalifikazioa onartzea lehiakideek lortutako puntuazioaren arabera eta deialdi espezifiko bakoitzeko hautaketa-prozesuko fase guztietako nota partzialak jarrita.

**BIGARRENA.**– Lanpostuak aukeratzeari buruzko 8.8 oinarri orokorra betetzea eta zazpi balioduneko epea irekitzea lehiakideek eskainitako lanpostuak aukera ditzaten.

Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonak bi prozesuetan parte hartu badute, hau da, egonkortasunerako ezohiko prozesutik datozen deialdietan zein ohiko prozesutik datozen deialdietan parte hartu badute, lanpostuen zerrenda bakarra osatuko dute, nahi izanez gero, prozesu bateko zein besteko lanpostuak tartekatuta, eta beren lehentasunen arabera hurrenkeran jarriko dituzte nahi

dituzten lanpostuak, betiere kontuan izanda lanpostuen hizkuntza eskakizuna eta betebeharrak espezifikokoak (halakorik badute) bete behar dituztela.

Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonen prozesu bietako bakarrean parte hartu badute, kasuan kasuko deialdiko lanpostuak baino ezin izango dituzte eskatu, dagokion kategoria eta espezialitatekoak

Lanpostuak bide elektronikoz aukeratzeko, I. eranskineko 8.8.1 oinarri orokorra hartuko da kontuan, "*Lan Eskaintzen Atarian **eskuragarri dagoen eskari orria beteta**. Eskaria behin beteta, egiaztagiria eskuratuko da. **Eskariarekin batera lanpostuaren betebeharrak espezifikokoak egiaztzeko agiriak aurkeztu behar dira**, halakorik behar izanez gero. Adierazitako epearen barruan betebeharrak espezifikokoak egiaztzeko agiriak ez aurkezteak hautaketa prozesutik kanpo geratzea ekarriko du*".

**HIRUGARRENA.** –8.8.3 oinarrian adierazitakoa kontuan hartuta ("*Oinarri honetan zehazten den epean eta eran lanposturik aukeratzeko ez duten pertsonen galdu egingo dituzte hautaketa prozesuan parte hartzeagatik lortutako eskubideak*"), ulertuko da ezen, eskainitako lanpostu kopuru nahikoa hautatu ez dutelako (eskakizun espezifikokoak eta/edo derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna betetzen dutelako), azkenean lanpostu horietakoren bat esleitu ezin zaien izangaiek, eskubide hobeak duten izangaiei hautatutako lanpostuak esleitu zaizkielako, prozesuan parte hartzeari uko egiten diotela.

**LAUGARRENA.**– Horretarako gaitutako UPV/EHUko web-orrian <https://www.ehu.eus/eu/web/azp/epe-funtzionarioen-ezohiko-prozesua>

<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/ohiko-prozesua-funtzionarioak>) eta UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea, gaitutuen azken eta behin betiko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

Epaimahaiko idazkaria